

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### **Vitoria-Gasteizko udalerrian ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntzak emateko deialdi publikoa eta oinarriak 2025 urterako**

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko Bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2025eko apirilaren 4an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko udalerrian ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntzen programaren 2025. urteko deialdi publikoa eta oinarriak.

Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik, auserako berraztertze errekurtsoa aurkez daitezke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berriaz edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera. Deialdiaren berriazko oinarri arautzaileen publikotasunaren inguruan araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

#### **Arau esparrua**

Vitoria-Gasteizko udalerrian ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntzen 2025. urteko deialdia dagozkion oinarrien eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren arabera arautuko da (Ordenantza hori 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn -88. zenbakia- argitaratu zen, eta 2023ko urriaren 1ean indarrean jarri). Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren Erregelamendua —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia— aplikatuko dira, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

#### **1. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak**

Laguntza hauek indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan (2025-2027) aurreikusten dira, zeina 2025eko urtarrilaren 17an onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, eta 2025eko otsailaren 21ean aldatu.

Aipatutako planaren arabera, "Enpresak sustatzeko laguntzak" (08\_04\_v02 fitxa) dirulaguntza-ildoaren barruan daude, eta honakoa dute xede: Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresen sorrera eta garapena bultzatzea, eta ekonomiaren sustapena eta lehiakortasunaren hobekuntza babestu eta bultzatzea.

## 2. Deialdiaren xedea

Honako hau da deialdi honen xedea: Vitoria-Gasteizko enpresek ekonomia zirkularreko proiektuak egitera bideratutako laguntzak konkurrentzia-erregimenean emateko baldintzak arautzea. Ekonomia zirkulartzat jotzen da produktuen, materialen, eta baliabideen balioak ekonomian ahalik eta luzeen mantentzen dituen eta ahalik eta hondakin gutxien sortzen dituen ekonomia. Laguntza ekonomikoa hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta konkurrentzia-erregimenean emango dira, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 19.1 artikularekin eta III. kapituluarekin bat etorritik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

## 3. Dirulaguntza jaso dezaketek ekintzak eta gastuak

Dirulaguntza jaso dezakete ekonomia zirkularrari ekarpena dioten proiektuak, ulertuta ekonomia zirkularra dela bizitzan behar ditugun produktuak eta zerbitzuak egitea, ziklo naturalak ahalik eta gutxien aldatuz.

Zehazki, 12 jarduera hauetakoren batekin bat datozen jarduketek jaso ahalko dute laguntza (jarduerak ekonomia zirkularra kategorizatzeari buruzko txostenetik atera dira, Europako Batzordeko Ikerketa eta Berrikuntzarako Zuzendaritza Nagusiak egina):

1. Zirkularitatea ahalbidetuko duten produktuen diseinua eta fabrikazioa, baliabideen eraginkortasun handiagoaren, iraunkortasunaren, funtzionaltasunaren, modularitatearen, eguneratzeko ahalmenaren, desmuntatzeko eta konpontzeko erraztasunaren bidez, edo material birziklagarrien edo konpostagarrien erabileraren bidez.

2. Berrikuntza eta prozesu-berringeniaritza zirkularitatea ahalbidetuko duten teknologiek.

3. Berrerabilgarriak, birziklagarriak eta konpostagarriak izango diren material berrien garapen eta ekoizpen jasagarria, biooinarritutako materialak barne.

4. Substantzia arriskutsuak ordezkatzeko produktuen diseinu berrietan.

5. Material birjinak bigarren mailako lehengaiekin eta azpiproduktuekin ordezkatzeko.

6. Bizitza baliagarria amaitzean bestela baztertuko liratekeen produktuak eta haien osagaiak berrerabiltzea, konpontzea, berregokitzea eta berriz manufacturatzeko.

7. Serbituzioa, berrerabiltzea eta erabilera partekatua, besteak beste, errentamendu eskemetan, erabileraren araberako ordainketan, harpidetzan edo gordailuaren itzulketan oinarrituta: bai negozio-lerro berriak enpresa finkatuetan, bai enpresa berriak.

8. Hondakinen eta soberako produktu, pieza eta materialen bilketa berezia eta alderantzizko logistika, balioa atxikitzea eta berreskuratzea ahalbidetzen dutenak.

9. Hondakinetatik materialak berreskuratzea: eskuzko prozesuak, prozesu mekaniko erdiao-tomatikoak eta/edo erabat automatikoak barne hartzen dituzten instalazioak, prozesu-teknologia eta ekipu mugikorak, baita birziklatze kimikoko instalazioak ere.

10. Hondakin organikoak berreskuratzea eta balorizatzea: barne hartzen ditu biofindegia, eta biohondakinetatik eta hondar-biomasatik, hondakin-uretatik eta jatorri organikoko lohietatik bioproduktuak eta lehengaiak ateratzeko teknologia, baita digestio anaerobikoa eta konpostajea ere.

11. Hondakin-urak berrerabiltzea/birziklatzea, hondakin-uren nahitaezko in situ tratamendutik harago doana.

12. Enpresaren zirkulartasuna digitalizatzeko tresnak, aplikazioak eta zerbitzuak garatzea/ ezartzea.

2024ko urriaren 18tik 2025eko urriaren 17ra bitarteko aldiari (bi egun horiek barne) dagozkion fakturak joko dira dirulaguntzaren xede izan daitezkeen gastutzat, zalantzarik gabe egokitzen zaizkiolarik diruz lagundutako jardueraren izaerari, eta kontzeptu hauetakoren bati dagozkiolarik:

– Proiektuko jarduerari lotutako ustiapen-material eta -hornigaiaren kostuak (lehengaiak eta bestelako hornigai kontsumigarriak).

– Proiektuko jarduerarako baino erabiliko ez diren makinak eta ekipoak erostea edo egokitzea. Barnean sartzen dira haiek alokatzeko edo leasingean hartzeko kostuak (diruz laguntzekoa den tarteari dagozkionak), baita proiektuaren helburuak betetzeko ezinbestekoa den prototipo bat fabrikatzeko gastuak ere.

– Proiektuen garapenarekin zerikusia duen softwarea.

– Kanpo-aholkularitzaren kostuak (laguntza teknikoa, aholkularitza, analisiak...), betiere proiektua egiten den bitartean era eskusiboan erabiltzen badira. Tipologia horren barruan sartuko da proiektuaren zati oso espezializatuak eta ezagutza teknikoak azpikontratatzeko, hala nola bizi-zikloaren azterketa sinplifikatua nahiz osoa egitearen kostuak eta, metodo estandarizatua baliatuz eta proiektuaren arrakasta edo bideragarritasun komertzialaren lehenengo azterketak eta abar oinarritzat harturik, "balioespen finantzarioaren txostena: ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak 2025. urtea 4 | 16" egitearen kostuak.

– Enpresa eskatzailearen langile-kostuak, proiektuaren helburuak betetzera bideratuta dauden neurrian, halakotzat langileen zuzeneko kostuak soilik hartuta.

Memorian aurreikusitako kostu bat adieraziko da, eta amaierako justifikazioan zehaztuko dira proiektuari egotzitako orduak eta kostu osoa (eurotan): orduko kostua bider egotzitako orduak. Nolanahi ere, ordu bakoitzeko gehieneko kostua ez da 70,00 eurotik gorakoa izango.

– Konponketa- eta berregokitze-arloko negozioen kasuan, jardunerako behar diren makinak edo tresnak diruz lagundu ahal izango dira.

Enpresa eta urte bakoitzeko dosier bakarra tramitatuko da.

2025eko urriaren 17a baino lehen behar bezala justifikatuta dauden ordainketek bakarrik jaso ahaliko dute dirulaguntza.

Aurkezten diren proiektuek gutxienez diruz lagun daitekeen 3.000,00 euroko inbertsioa izan beharko dute, 15. oinarriko irizpideekin bat etorritik (Balioespen-irizpideak). Hortik kanpo daude konponketa- eta berregokitze-arloko negozioak, kasu horietan muga 1.500,00 eurokoa izango baita.

#### 4. Ez dira diruz lagunduko

Oro har, honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat joko:

– Proiektuak ezartzeko enpresak bere gain hartutako prestakuntza-gastuak.

– Aktibo finkoko inbertsio hauek: aktibo ukiezinak (jabetza industrial eta informatika-warea izan ezik), eskualdatze-eskubideak, frankizia-eskubideak, lursailak, eraikinak, berrikuntzak, eraikuntza eta instalazioen proiektuak (elektrizitatea, segurtasuna, girotzea, ura eta abar), apaingarriak, garraio-elementuak, telebistak, telefono-terminalak eta antzekoak.

– Jarduera berriari lotutako bigarren eskuko makina eta ekipoak erostea, bestelako laguntzarik jaso badute.

– Enpresaren ohiko funtzionamendutik sortutako gastuak, edo etengabea edo aldizkakoa den jarduera bati dagozkionak: bulegoko materiala, mantentze-lanak, piezak konpondu edo ordeztzea, tresnak berritzea, promozio-ekitaldiak, bidaiak, publizitatea, otorduak, hornikuntzak, alokairuak eta antzekoak.

- Patenteak, erabilgarritasun-modeloak eta diseinu industrialak berritu edo aldatzeko gastuak.
- Adierazitako jardueri dagozkien zerga edota tasak, gainordainak eta administrazio-zigorak.
- Ibilgetu materiala leasing bidez eskuratuz gero, kuotak bakarrik lagunduko dira diruz, ez interesak eta gastuak.
- Diruz lagundu daitezkeen gastuen atalean jasota ez daudenak.

### **5. Dirulaguntzak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea**

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazita, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren gardentasun atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

### **6. Enpresa onuradun izateko betekizunak**

Merkataritza-jardueraren bat duten enpresa pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, betekizun hauek betetzen badituzte:

- a) Helbide soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea edo dirulaguntza jaso lezaketen jarduerak zuzenean Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta dagoen zentro batean garatzea.
- b) Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik balio osoz eratuta egotea.
- c) Eskabidea tramitatzeko prozesu osoan (aurkeztean, ebaztean, obligazioa onartzean eta ordaintzean) EJZn izena emanda egotea.
- d) Enpresa txiki edo ertaina izateko betekizunak betetzea eskabidea aurkezten den unean, hau da, 250 enplegatutako baino gutxiago izatea, eta urteko fakturazioa 50 milioi eurotik beherakoa izatea, edo balantze orokorra 43 milioi eurotik beherakoa.
- e) Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresekin loturarik ez izatea, edo haiek partaidetza nagusia ez izatea enpresan.
- f) Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.
- g) Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar).

### **7. Baliabide ekonomikoak**

“Ekonomia zirkularreko proiektuetarako laguntzak” izeneko 2025/0821.4331.47136 partidaren kontura finantzatzeko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak. Aurrekontu zuzkidura: 100.000,00 euro.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan xedatutakoaren haritik, zuzkidura hori handitzerik izango da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren erabakia dela medio, baldin eta udal sail horrek enpresei zuzendurik egiten dituen deialdietakoren batean soberako krediturik badago. Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan aski kreditu izan beharko da erabilgarri eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

### **8. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna**

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin, salbu eta Vitoria-Gasteizko Udalak berak kontzeptu berengatik emandako bestelako laguntzekin, kasu horretan bateraezinak izango baitira.

Nolanahi ere, eskuratzen diren dirulaguntzen/laguntzen baturak ezingo du gainditu dena delako kontzeptuaren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza edo baliabiderekin batera.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

### **9. Indarraldia eta eskabideak aurkeztea: epea eta lekua**

9.1. ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko dira indarrean oinarri hauek; aldeztetik laburpen-iragarkia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen. ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2025eko ekainaren 20ean bukatuko, egun hori barne.

9.2. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

– Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko dira, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digitala erabili beharko da.

– Aurrez aurre:

– Udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30-14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) webgunean).

– Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) webgunean). Aurrez aurre arreta emateko gunean dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeke beste sistematik erabili gabe.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. b artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonak tramitazioak iraun bitartean, hartara eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko behar diren abisuak helarazteko, legeak ezartzen duen moduan jakinarazi beharra gorabehera.

9.3. Interesdunek eskabidea (I. eranskina) aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

9.4. Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

## 10. Nahitaezko agiriak

10.1. Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza eskabideei:

- Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena: I. eranskina.
  - Inbertsio-taula: II. eranskina.
  - Proiektuari atxikitako langileen kostuaren justifikazioa: III. eranskina.
  - Proiektuari buruzko memoria, gehienez ere 5 orrialdekoa.
  - Pertsona fisikoen kasuan: nortasun-agiriaren fotokopia.
  - Pertsona juridikoek:
    - IFZren kopia.
    - Enpresa eratzeko eskrituren kopia.
    - Ordezkaritza-ahalordearen kopia.
    - Ordezkaritza-ahalordea duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia.
    - Soldatapeko langilerik izanez gero, azken hilabeteko TC2 agiria.
    - Enpresak soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo ordainketaren ordainagiria.
    - Egitekoak diren inbertsioen aurrekontuak edo, kasua bada, fakturak.
- Baldin badute, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute enpresa eskatzaileek, eskabidea balora dadin:
- Erakundearen edo produktuaren ingurumen-ziurtagiria edukitzea egiaztatzen duten agiriak.
  - Energia berriztagarriko instalazioa bat dutela egiaztatzen duen dokumentazioa.
  - Enpresa eskatzaileak sinatutako kontraturako energia berriztagarriak erreserbatu izanaren Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren agiria.

10.2. Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 12 e) artikularekin bat, ofizioz konprobatuko da eskatzaileak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean dituen, salbu eta onuradunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanaz. Eskakizun hori dirulaguntza ematen denean, ordaintzeko obligazioa onartzen denean nahiz dirulaguntza ordaintzen denean bete beharko da.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitura Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

## 11. Eskabidearen akatsak zuzentzea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 20.4 artikularen ildotik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, betiere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

## 12. Dirulaguntza emateko prozedura

12.1. Dirulaguntza hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta konkurrentzia-erregimenean emango dira, hau da, dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, haien arteko lehentasuna ezartzearen, deialdian alde aurretik ezarritako balioespen-irizpideen arabera, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren III. kapituluarekin eta 19.1 artikularekin bat etorriz. Hala ere, dirulaguntzak ematekotan, kreditu egokia eta nahikoa izan beharko da deialdia ebazteko orduan.

## 12.2. Instrukzioa eta ebazpena.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Balioespen-batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

– Lehendakaria: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark ordezeko izendatzen duena.

– Kideak: deialdiaren xede den arloko hiru profesional aditu, bata Gasteizko Udalekoa, eta, horiez gain, honako hauek:

– Iñigo Aizpuru, Ihebeko ekonomia zirkularreko teknikaria.

– Olga Martín, Aclimako zuzendari nagusia.

– María Fernández, enpresari aplikatutako ekonomia zirkularreko udal-teknikari espezialista.

– Idazkari teknikoa: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat, ahotsa izango duena, baina ez botorik.

Balioespen-batzordeko teknikoko kideek konfidentzialtasun-hitzarmen bat sinatu beharko dute, aurkeztutako proiektuen egileen jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak babesteko.

Eskabideak jaso eta izapidetzeko onartu ostean, eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, balioespen-batzorde teknikoak txosten arrazoitu bat egingo du, eta bertan zehaztuko egindako balioespenaren emaitza eta horien arteko lehentasuna. Instrukzio-organoak ebazpena eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio eman edo ukatuko dira laguntzak, horretarako ahalmena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratutako iragarkien bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren irizpideei jarraituz.

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko erabakiak agortu egingo du administrazio-bidea, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkez daiteke, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, berriz, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoko arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

Oinarri hauetan berariaz aurreikusi gabekoetan, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen udal ordenantza aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren erregelamendua ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

## 13. Ebazteko epea

Prozeduraren ebazpena emateko eta argitaratzeko epea sei hilabetekoa izango da gehienez. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epe hori.

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsizat jo ahalko dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

#### 14. Onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Laguntza zertarako eman zaien, horretarako baliatzea.
- Dirulaguntza jasotzen duen proiektua deialdira aurkeztu den moduan gauzatzea. Dirulaguntza emateko kontuan hartu den proiektuan funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, aldez aurretik idatziz jakinarazi beharko zaio Vitoria-Gasteizko Udalari. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da. Berariazko baimenaren bitartez baino ez da onartuko.
- Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.
- Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea deialdi honetara aurkeztutako gastu berak finantzatzeko bestelako laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero —horien jakinarazpena jaso bezain laster—, Estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emana izanik ere. Horretarako dagozkion administrazio edo erakunde publikoaren ebazpen ofiziala aurkeztu behar da.
- Egokitzat jotzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahal izango dizkie udalak dirulaguntza eskatzen duten pertsona edo entitateei, eskabidea behar bezala baloratu ahal izateko.
- Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.
- Dirulaguntza eman ondoren, norako eman den, horretara bideratzea ekonomi jarduera gutxienez bi urtez. Adierazitako epe hori igaro aurretik jarduera eten egiten bada, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio Udalari, eta emandako dirulaguntza osorik edo horren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik 2 urteko epe hori —dirulaguntza eman zen egunetik kontatuta— betetzeko falta den denborarekiko proportzioan. Salbuespen gisa, ez da eskatuko jaso den dirulaguntza itzultzeko negoziarioa ixteko arrazoia jabearen gaixotasun larria edo heriotza bada.
- Diruz lagundutako aktiboak gutxienez bi urtez edukitzea enpresan, erosten diren egunetik (fakturan ageri den datatik).
- Vitoria-Gasteizko Udalaren aurrekontuen kontura ematen diren laguntza eta dirulaguntzetarako ezarritako betebeharrak eta baldintzak oro.

#### 15. Balioespen-irizpideak

Norgehiagoka bidezko konkurrentzia baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik; horrenbestez, alderatu egingo dira aurkeztu diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta —ezarritako dirulaguntzen gehieneko muga errespetatuta— berariazko oinarrietan ezarritako balioespen-irizpideetara ongien egokitzen diren eskabideek bakarrik jasoko dute laguntza. Eskabideak balioesteko, aurkeztutako proiektuak alderatu egingo dira, ondoren adierazten diren balioespen-irizpideak aintzat harturik.

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	
PROIEKTUARI BURUZKOAK	
<b>Proiektuaren kalitate teknikoa</b> Alderdi hauek baloratuko dira, besteak beste: idazketa argia eta zehatza, irudien babesa eta proposatutako jardueren bideragarritasunari buruzko erreferentziak edo proiektuaren arrakasta neurtzeko modua	Gehienez 25 puntu
<b>Proiektua Ekonomia Zirkularraren helburuetara egokitzea</b> Aintzat hartuko da, eta baloratu, proiektuak ekonomia zirkularraren oinarriko 3 printzipioei egiten dien ekarpena: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hondakinak eta kutsadura desagerraraztea</li> <li>- Produktuak eta materialak berrerabiltzea eta birziklatzea (bereziki baloratuko da produktu eta material horiek balio ekonomikorik ez galtzea)</li> <li>- Izadia leheneratzen laguntzea</li> </ul>	Gehienez 45 puntu
<b>Teknika erabilgarri onenak (TEO)</b> Eusko Jaurlaritzaren Teknologia Garbien Euskal Zerrendako teknologietakoren bat erabiltzea – Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2024ko azaroaren 26ko AGINDUAN jasoa – edo Balorazio Batzorde Teknikoaren iritziz egoki litzatekeen besteren bat erabiltzea	Gehienez 5 puntu
ENPRESARI BURUZKOAK	
Ekonomia sozialeko enpresek 5 puntu gehiago jasoko dituzte (lan-sozietateak eta kooperatibak; nolana ere, kanpoan geratuko dira fundazioak eta elkarteak)	Gehienez 5 puntu
Antolakuntzaren edo produktuaren ingurumen-ziurtagiria duten enpresak 1 puntu ENACEk egiaztatutako entitate batek ziurtagiri zigitu bakoitzeko MITECOren erregistroaren bidez karbono-aztarna murrizten edo konpentsatzen ari direla frogatzen duten enpresak. 1 puntu	Gehienez 5 puntu
Enpresaren Gasteizko instalazioetan energia berriztagarriak erabiltzea (egoitza anitzeko enpresen kasuan): 2 puntu jatorri-bermea duen energia elektriko berdea hornitzeko kontratu bat edukitzeagatik 3 puntu energia berriztagarria sortzeko instalazio bat edukitzeagatik	Gehienez 5 puntu
<b>Enplegu tasa</b> - Mikroenpresak eta enpresa txikiak: 5 puntu - Enpresa ertainak: 0 puntu	Gehienez 5 puntu
<b>Parekotasun irizpidea</b> Emakume enpresaburuak, edo enpresak, edozein forma juridiko dutela ere, baldin eta bazkideen % 40 gutxienez emakumeak badira <b>Emakume eta gizonen presentzia orekatua</b> Sexu bakoitzeko gutxienez % 40ko partaidetza-tasa enpresako zuzendaritza- eta ardura-postuetan	Gehienez 5 puntu
<b>Gehieneko puntuazioa guztira</b>	<b>100 puntu</b>

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 20.1 m artikulua betez, genero-ikuspegia txertatzeko ekintzak sartu dira balioespen-irizpideen artean, eta baremo osoaren ehuneko 5eko balioespena dute.

Aurkeztutako proiektuak dirulaguntza jasotzerik izan dezan, gutxienez 30 puntu eskuratu beharko ditu "Proiektua balioesteko irizpideak" multzoa osatzen duten alderdietan.

## 16. Dirulaguntzaren kalkulua

16.1. Norgehiagoka bidezko konkurrentzia baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa. Hortaz, alderatu egingo dira aurkezten diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 15. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

16.2. Diruz lagun daitezkeen gastuen (ikus 3. oinarria) ehuneko 65eko dirulaguntza emango da, gehienez 10.000,00 euroko mugarekin. Aurreko deialdietan proiektu berarentzako laguntza bera jasoa izan ahalko du eskabidea egiten duen enpresak, baldin eta lehendik emandako laguntzaren zenbatekoa 50.000,00 eurotik gorakoa ez bada.

16.3. Guztira lortutako puntuazio horren arabera ezartzen den hurrenkerari jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte.

Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, alderdi hauek hartuko dira aintzat bata edo bestea lehenesteko:

- 15. oinarriko "Proiektuaren kalitate teknikoa" atalean lortutako balorazioa.
- Proiektuak ekonomia zirkularraren helburuei egiten dien ekarpenaren balorazioa.
- "Parekotasuna" atalaren balorazioa.

Baldin eta saldoa ez bada aski kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua emango zaio horri.

### 17. Dirulaguntza ordaintzea

Honela tramitatuko da proiektuak garatzeko ematen diren laguntzen ordainketa:

- Laguntza ematea ebatzi ondoren, laguntzaren ehuneko 80 ordainduko da.
- Gainerako ehuneko 20a, 19. oinarrian (Justifikatzeko epea eta modua) adierazitako dokumentazioa jaso eta egiaztatu ondoren.

Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, edo zordun gertatzen bada, dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delako.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Nolanahi ere, onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa eta azkenean justifikatutakoa bat datozela egiaztatuko da, justifikazioa egiaztatzeko fasean. Baliatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Horrek ez du eragotziko bidegabe justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, aplikatzekoa den araudian ezarritako kasuetan.

### 18. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen dituen funtsezko edozein aldaketak ebazpena aldatzea eragin dezake, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

### 19. Justifikatzeko epea eta modua

Dokumentazioa aurkezteko epea 2025eko urriaren 17an amaituko da, egun hori barne. Dirulaguntza justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua garatzean egindako jardueren eta lortutako emaitzen oroitidazkia.
- Ahal izanez gero, gauzatutako proiektuen dokumentazio grafikoa.
- Enpresan proiektuari egotzitako langileen kostuen taula, IV. eranskinaren arabera.
- Egindako gastuen justifikazioa, behar bezala egiaztatua, eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak.

– Langile-kostuei dagokienez: erantzukizunpeko adierazpena eta/edo sinatutako ordutegi-partea, pertsona bakoitzak proiektuari eskainitako orduak identifikatuz. Horietako bakoitzaren kostu unitarioa behar bezala egiaztatzea, baita kostu unitario horren kalkulua ere, sortutako guztizkoa eta Gizarte Segurantzak enpresarentzat duen kostua ikusi ahal izateko. Adierazitako eta justifikatutako kostu unitarioa ezin izango da orduko 70,00 eurotik gorakoa izan. Diruz laguntzeko aurkeztutako inbertsioen fakturak euroa ez den beste moneta batean badaude, interesdunak zenbatekoa eurotan adierazi beharko du, faktura egin zen egunean Europako Banku Zentralak adierazitako kanbio-tasaren arabera.

Justifikazio-kontu arruntaren bidez egingo da justifikazioa, non, gutxienez eta oro har, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 33. artikuluan zerrendatutako dokumentuak jasoko baitira. Horretarako, justifikazio-kontu arruntaren eranskina bete beharko da (ikus eranskinak).

Justifikatzeko epea bukatzen delarik egindako gastuen zati bat baino ordaindu ez bada, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, kobratzeko eskubidea galtzeari dagokienez.

## 20. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahalko ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote pertsona onuradunek. Horretaz gain, Udaleko Kontu Hartzailletza Nagusiaren eskumena da Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

## 21. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea eta horretarako prozedura

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan itzuli beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada. Halaber, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren II. kapituluaren eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzulketa-prozedurari, kausei, preskripzioari eta itzultzeko betebeharra dutenei dagokienez.

## 22. Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa. Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideak baliatu nahi dituenak —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko du.

## 23. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakarta printzipioak (Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak). Hartara, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, hitzarmena sinatzen duen entitatearen proiektuak bat egingo du Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

Hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

— Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzeko konpromisoa, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuz; generoaren, klase sozialaren, jatorri kulturalaren, administrazio-egoeraren, adinaren edo dibertsitate funtzionalaren arabeko desberdintasunak agerian uztera edo arintzera bideratutako helburu eta jarduketara espezifikoak txertatuz, eta ekintza positiboak aurreikusiz.

— Generoa kontuan hartzerakoan, pertsona guztiak emakume edo gizon heterosexualak direla ziurtatuz ez jotzeko konpromisoa —zisheteronormatibitatea—, ezta familia guztiak nuklearrak direla ere. Sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen tratamenduan, patologizazio, biktimismo eta pinkwashing orori ihes egiteko konpromisoa.

– Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexua/generoa –emakumea/gizona/ez-binarioa edo entitateak egokitzat jotzen duen beste forma bat– aldagaia sistematikoki txertatzeko konpromisoa.

– Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eta inklusiboa egiteko konpromisoa, pertsonak zein gizataldeak modu bidezko batean irudikatzeko, eta generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriren araberako rol eta estereotipoak sendotu gabe.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko martxoaren 27an

*Administrazio zerbitzuko burua*

**JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ**

### ERANSKINAK

Eskabide-orria	I. eranskina
Inbertsio-taula	II. eranskina
Enpresan proiektuari egotzitako langileen kostuen taula	III. eranskina
Justifikazioko kontu arrunta	Justifikazioari buruzko eranskina
<a href="https://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak">https://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak</a>	